



**MAHAI SEKTORIALA: ESKOLA ITUNAREN NEGOZIAZIOAREN GAINEKO  
INFORMAZIOA.  
1. ORRIA**

**“PACTO PARA LA MEJORA DEL SERVICIO EDUCATIVO EN LA COMUNIDAD  
FORAL DE NAVARRA”  
279/2001 ORDEN FORALA**

**KRONOLOGIA**

2001ko maiatzaren 31an sinatu zen. AFAPNA, CCOO, CSI-CSIF ETA FETE-UGT sindikatuek sinatu zuten.

INDARREAN egon da 2004/2005 ikasturtea bukatu arte.

**ZER ARAUTZEN DU?**

- ↔ Taldeak egiteko irizpideak.
- ↔ Ordu lektiboak zehazteko irizpideak.
- ↔ Aniztasunari erantzuteko neurriak.
- ↔ Plantilak zehazteko irizpideak.
- ↔ Langileei dagozkien neurriak.
- ↔ Heziketa-Sare telematikoaren zabalpena
- ↔ Diru publikoaz mantentzen diren zentoetan eskolatze prozesua.
- ↔ Langileen ordezkapenak.
- ↔ Lan-osasuna.
- ↔ LOGSE erretiroak.
- ↔ Baimenak.
- ↔ Irakasleen Formazio Plana.

**ITUN BERRI BAT NEGOZIATZEKO EGINDAKO BILERAK**

**2005ko azaroaren 16an.**

Administrazioak ontzat ematen du Itunaren formula zenbait puntu lotzeko. Negoziaketa honetan kontuan hartzeko beste elementuak:

- ↔ LOEren tramitazioa.
- ↔ Espainiako Ministerioak Estatuko sindikatuekin sinatutako ituna.
- ↔ Irakasleen estatutua.

Euren proposamena banatzen dute.

Sindikatuak bi asteko epea ematen zaie euren ekarpenak egin ditzaten... Administrazioak konpromisoa hartzen du sindikatu guztiek egindako ekarpenak txosten bakar batean jasotzeko.

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>



Sindikatu guztiak bidaltzen dituzte euren ekarpenak epearen barruan.

Sindikatu guztiak bat datoz administrazioari puntu guztiez hitz egiteko eskaera egiteko.

### 2005ko abenduaren 16an.

Bilera honetara Administrazioa aurrekoan bezala aurkeztzen da, aurreko proposamenarekin, alegia. Txostenari data ere ez dio aldatzen.

Sindikatuaren aldetik haserrealdia. Mahaitik altxatzen gara.

Ondoren Sindikatuen ordezkariok elkartu egiten dugu eta administrazioak egin beharreko lana ekiteari egiten diogu. Hortik Txosten bakar bat ateratzen da eta Administrazioari pasatzen zaio.

### 2006ko otsailaren 1ean

Administrazioak Sindikatuak aurkeztutako proposamenaren aurrean proposamen bat dakar. Plataforman agertutako puntu guztiak jaso egin dira, euskarari gagozkionak izan ezik.

Hemendik aitzina eraman beharreko metodologia zehazten du:

- ↔ Bilerak hamabostean behin egingo dira.
- ↔ Hurrengo bilera otsailaren 17an.
- ↔ Bost bloke markatzen ditu:
  - Ikastetxeen plantilak.
  - Ikastetxeen egutegia eta ordutegia.
  - Irakasleen ordutegia eta egutegia.
  - Ikastetxeen autonomia. Kalitatea eta heziketa berrikuntza.
  - Ikastetxeen autonomia eta Elkarbizitzarako Planak.

Lehenbiziko hiru blokeak apirila baino lehen bukatuta egon behar dira.

1. blokeari dagokion proposamena bidaltzen digu, hurrengo bileran (otsailak 17) tratatzeko.

### HONEKIN BATERA ONDOKO INFORMAZIOA BIDALTZEN DIZUEGU:

- ↔ Administrazioak egindako lehenbiziko proposamena. LABek egindakoa.
- ↔ Sindikatu guztiak adosturiko plataforma.
- ↔ Administrazioaren erantzuna.
- ↔ Plantilen inguruan Administrazioak egindako Proposamena. LABen iritzia.